

Frantzisko Xabier Maria Muniberen teatroa

Patri Urkizu

Frantzisko Xabier Maria Munibe eta Idiakez, Peñafloridako zortzigarren kondearen heriotzaren bigarren mendeurrena ospatzent dugularik, zein omenaldi ederragorik eskain geniezaiokeen berak hainbeste maite zituen opera komiko eta antzerkiak berriro aztertzea baino? Beraz, hemen ondorengo lerrootan, XVIII. mendean Euskal Herriak izan zuen gizonik garrantzitsuenetarikoaz arituko gatzaizkizue, aztertuz eta ikertuz nola kokatzen dugun eta nola dakusagun bere bizitza eta idazlanak Europako Ilustrazio mugimenduaren baitan.

Argien menda deitua izan ~~una~~ aurreratuxea doakigunean jaioko da Gipuzkoako herri batean, Azkoitian, hain zuzen, urriaren 23an eta 1729. urtean.

Bere lehen pausoak, noski, ohizko ziren jauntxo eta handiki batenak, noble baten semearenak bezalaxe koak izango ziren, bere jauregian pottoko-pottoko zaindarien artean batera eta bestera antxintxikatuko zelarik.

Lehen ikasketak jesuiten ikastetxeen eman zituen eta badirudi ez zela ikasle onegia, garaiko irakasle zorrotzen eritziz “poco aplicado y aún flojo”, alfer xamarra eta kaskarra omen bait zen. Baino, antza, argirik ez zitzaison falta eta hor ikusiko dugu Frantziako

bidean Toulouse aldera doala, hamalau urte besterik ez duenean. Hantxe ikasiko ditu ikastetxe batean Matematikak, Gizarte-gaiak, Fisika esperimental eta utzi ezin izango duen biolina. Flouret, Charron, Tavernier, du Gache, Drulhe eta Salet irakasle jakintsuen itzal eta babespean, argitasunez, jakituriaz edo bederen jakintza-minez, zientziatarako gogo handi batez hornituz joango zaigu, eta ezin uka ikasturte haietan benetan fruitu oparorik ekarriko ziota la Euskal Herriari.

1746. urtean, ordea, aita hil zitzzion eta bere ikasketen tesiak urte bereko udazkenean Felipe V.ari eskaini ondoren eta diplomak jasorik, bere jaioterrira itzuli zen. Hemen, 1747. urtean, ekainaren hiruan, Oñatin, Maria Josefa de Areizaga eta Irusta etxe oneko alabarekin ezkondu zen, beragandik seme-alaba ugari izan ziuelarik.

Ohartu zen, noski, gure kondea, Europan zehar bizi zenean ikusi zuenarekin konparatuz, zer-nolakoa zen herriaren ezjakina eta pobrezia, nola hantustez, fantasiaz eta sineskeriez zaintzen zuen bere miseria hura edozein ideia berriren aurka, kontutan hartrik garaian ehuneko laurogeik ez zekiela irakurtzen. Berehala, bada, egoera honi erremedio jartzera prestatu zen, eta izan zuen, bidenabar, abagadunerik: 1749. urtean bere jaioterriko alkate izendatu zuten eta 50, 54, 58 eta 61. etan Gipuzkoako Diputatu Nagusi, eta 58an Madrileko gorteetarako ere diputatu hautatu zuten.

Beraz, ez zen geldirik egoteko jaioa; honela deskribatzen digu bere lagun izan zen Joakin Maria Egia eta Agirrek, Narrosko hirugarren markesak Muniberen heriotzan egin zuen hitzaldi ohora-garrian:

“... nuestro Conde presenta y regenta todas las funciones, así en el templo como en la plaza. En la iglesia se le ve delante del facistol, rodeado de todo el cabildo, llevando el compás y cantando las misas y arietes que ha compuesto él mismo. Se le ve en la plaza instruyendo al tamborilero y haciendo tocar zorcicos y contrapases de su composición”¹.

Hau da gure kondea. Bai elizan bai herriko plazan egiten diren elizkizun eta jaialdi guztietan parte zuzen eta eragilea hartzen du, bertako musiken konposatzaile, abeslari eta zuzendari izanik; hitz batean, Azkoitiaren gorputz eta arima.

Honela, Arantzazun bada Joseph Pla-ren «Stabat Mater Dolorosa» bat ohartxo honekin: “En el año de 1756, lo cantó el Sr.

Conde de Peñaflorida en ésta de la Madre de Dios de Aránzazu, oyéndole toda la Comunidad con mucho gusto”².

Beste konposizioen artean, hortxe utzi zizkigun ere: “Aita gurea”, “Ave María” eta “Gloria”, Azkoitian lau ahots mistotan abesten dena, “Sentenciatu dute” eta “Emen Jesus il zan”. Hauek, aste santuan kantatzekoak eta aita Kardaberaren bertso batzu oinarri harturik eginak. Baita ere Meza bat, “Irten Izazu” izeneko konposizioa, “Benedictus” bat lau ahotsetarako, eta “Adiyo Pro-bintziya...” izeneko zortzikoa, gero M. Paz-ek pianorako moldatua.

Baina hemen ez dugu bere musika aztertuko; aztertua dute bai aita Donostiak, bai besteek; eta azkenik Jon Baguesek sakonki egiten du laster Eusko Ikaskuntzak argitaratuko duen “El Conde de Peñaflorida, impulsor de la Ilustración musical en el País Vasco” artikuluan; bere teatroa aztertuko dugu.

Kondeak asko maite zuen lagunartea; bere kideen artean aurkitzen ziren Altuna birtutetsua (Rousseau-ren adiskidea) eta Egia (gorago aipatua), elkarrekin hirukote eder bat osatzen zutelarik, herriko eta aldameneko beste jakintsuekin, “garaiko intelligentsia” Jauregiko palazioan biltzen zen, mendeko gauzez elkarritzetazeko. Oro zen mintzagai eta araudí baten arabera antolatuak zeuzkaten eztabaidak, era honetara hain zuzen: astelehenetan Matemati-kez, astearteetan Fisikaz, asteazkenetan Historiaz eta itzulpenez, ostegunetan musikaz eta kontzertuak antolatzearaz, ostiraletan Geografiaz, larunbatetan garaiko gertakizunez eta igandeetan berriro musika-kontzertuak eta antzezemanaldiak prestatzen ziren.

Elkarritzketa hauen lehen ondorioa izango da elkarrekin edo idatzi zuten eta moldiztegiratu zuten lehen liburu: *Los aldeanos chriticos, o Cartas chriticas sobre lo que se verá. Dadas a luz por Don Roque Antonio de Cogollor*, Evora, 1758. Don Roque Antonio de Cogollor hau ezizen bat dugu, noski, eta inprimalekua ere faltsoa da. Baino hau aski ohitura arrunta zen garaian. Liburu honekin, mendeko eztabaidan parte hartzen dute; alegia, filosofia zaharraren eta berriaren arteko istiluan nolabaiteko lerratze bat suposatzen du, filosofia berria eta fisika esperimentalaren aldekoa, hain zuzen. Urte berean Isla jesuitak arrakasta handiz argitara zuen *Historia del famoso predicador Fray Gerundio de Campazas, alias Zotes* liburuan esaten zirenei nola-halako erantzuna da, bost gutunen bidez. Honela zioten sarrerako eskaintzan:

"Al Vetustísimo, Calvísimo, Arrugadísimo, Tremulísimo, Carcucísimo, Carraquísimo, Gangosísimo y Evaporadísimo Señor, el Señor Don Aristóteles de Estagira, Príncipe de los Peripatos, Margrave de Anthiperhistasis, Duque de las Formas Substanciales, Conde de Antipatías, Marqués de Accidentes, Varón de las Algarabías, Vizconde de los Plenistas, Señor de los lugares del Tembleque, Potrilla, Villa-Vieja, Capitán General de los Flatulentos Exercitos de las qualidades ocultas, y Alcalde Mayor perpetuo de su Prae-Adamítico Mundo"³.

Gero tonua serioagoa izango da, noski; baina ez da agertzen ez Aristoteleren ez Platonen aurka osoki, hauek dogmatikoki hartzen zituztenen kontra baizik, fisika berria mespretxatuz. Kritika eta laudorioen artean agertzen dira ere ohartxo batzu antzerkiaz; adibidez, Molière aipatzerakoan, txit baikor eta ontzat daukate honen *Ecole des femmes* (Andereen eskola), baina ez berdin bere *Tartuffe*, honen hizkuntza ausartegi, deabruntsuagatik, eta aurkezten dituen ekintza zikinengatik. Ondorio bezala, gertatu zen aita Islak (Francisco Lobon de Salazar ezizenez) gutun bat idatzi ziola Peñafloridari eta horrela elkarren artean gutun-gurutzaketa bat, benetan interesgarria, suertatu zela 1759. urtean. Elkarri ziriak sartu ondoren, lagun on bezala amaitu zuten, honela idatzi bait zion Peñafloridak Madrilen 1759ko martxoaren 31n dataturik duen gutun batean:

"Destíérrese de nuestra conversación todo lo que huela no solo a enemistad, sino aún a indiferencia. Hagámonos cargo de que (...) Corsaires attaquant Corsaires
Ne font pas guère leurs affaires
y amémonos"⁴.

Alegia, elkar maita zezatela eta bat bederak bere gaiari hel ziezaiola. Guk ere, giro-sarreratxo honen ondoren, lot diezaigun haria Peñafloridaren teatroari.

Gabon-sariak

Ikusi dugu lehenago nola kondeak parte hartzen zuen elizkizunetan, eta honen adierazgarri izango dira *Gabon Sariak*.

Gavon-sariak / edo / aurtengo gavonetan / Azcoytico Eleiza Naganusian can / tatuco diran Gavon cantac edo otsaldiak / Puer natus est nobis / Venite adoremus / Azkoitin Miserikordian MDCCLXII.

Honelaxekoa da “antzerki” honen lehen orrialdea. Egileak, Luisa Miserikordiakoak (Xabier Munibek hartzen duen goitzena) hitzaurrean esaten digunez, Bilbo, Madrile eta Cadizko Gabon-kantak moldiztegiraturik zeudela ikusirik, burura zitzaison Azkoitiko musika aingeruzkoak ere inprimaeraztea. Nola bertsokonponketan eta -moldaketan Martin Beltzek lagundi duen, segidila, aria eta kopla handietan eta musika “Melon antxiñako organista buapo ark, ta Lorentzo dantxariak, biak alkar arturik, atera dabe”⁵.

Lan honek, dakidanez, lau argitaraldi izan ditu. Lehena Azkoitian 1762an, bigarrena *Euskal Erria* Donostiaro aldizkarian 1889an, hirugarrena *Egan-en* 1956an eta laugarrena Auspoa bilduman, 48. alean, 1965. urtean, Gabriel Arestik prestatutako edizio batean.

Lehen hotsaldian tonadila eta segidilak datozen, “ai, aur ederra” estribiloarekin. Bigarren hotsaldian “Aria, karidadearen eta egiazko amorioaren auan”, eta hirugarren hotsaldia hitz lauz hasten da adirakaia batez, gero artzainen koroa datorrela Tersis eta Filis artzainen elkarritzetarekin, kopla jostailuak deituriko zortziko batzurekin amaitzeko. Hona hemen bukaerako jostailu bat:

“Baña kanta berri au
geitxo luzatu da,
nere eztarri tristea
ia urratu da;
Nahiago det ixildu
katarratu baño;
Agur, nere jendeak,
Urrengo urterano”⁶.

Euskal Erria aldizkariko edizioan “El primer melodrama éuskaro del siglo XVIII” izendatzen zen, oraindik ez bait zen argitarra Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna edo Acto para la Noche Buena*, 1759. urtea baino lehenagokoa dena. Lakarra ikertzailearen ustez, ordea, ez daiteke idazki hau antzerki-sailean sar, bilantzikoen atalean baizik. Honela dio: “España osoan garai hartan eta hainbat urte lehenago egin ohi ziren bilantziko ugarien erakusgarri bat [da] (...) Gandararen kasuan denborak eta bilakuntza berriak garbi utzi dute lehen ere ezin argiago egon behar zuena. Alegia, bere 1757, 1762 eta 1764ko obrak bilantzikoak, onak edo txarrak, baina bilantziko hutsak direla, eta ez antzerkiak idatzi izan den bezala”⁷.

Dena den, ezin uka daiteke garai hartako elizkizunek antzerkiarekin bazutela aski lotura, eta mugak ipintzea aski zail da. Bere aldetik, Juan San Martinek 1974eko abenduaren 27an Azkoitiko Insausti jauregian irakurri zuen artikulu batean esaten digu:

“Teatro antzera egindako obra honek, ikasi batek egindako kanta herrikoiak ditu. Estilo jolaskorra, baina batez ere eruditiozkoa, jakintzaz hornitua, eta hau du hain zuzen Ilustrazio garaiko agerrirrik bereziena”⁸.

Hau dela eta, noski, titulatu zuen bere hitzaldia: «“Gavon-Sariac” gure Ilustrazioaren sarrera».

Zalduntxoen dibertimendu teatralak

Goazen orain kondearen beste antzerki-lan “italiarragoak” aztertzen.

Peñafloridak berak idatziriko gutun batean aipatzen zaizkigu zalduntxoen dibertimendu teatralak sortzen zituen arazoak eta zeintzu lan ari ziren antzezen:

“Una de las piezas que pensamos echar en Vergara (que se intitula El Criado de dos amos) la representamos aquí ahora dos inviernos, sin que nadie tuviese que notar en ella, sin embargo de que la vieron todos los del lugar hasta los PPes. del Colegio. El P. Croce, que Vm. conoce muy bien, y puede dar sin duda un dictamen con tanta solidez como cualquiera de los PP. de ese Colegio, permitió a su penitenta, mi prima M^a Xaviera, el que representase uno de los primeros papeles en ella”⁹.

Beraz, 1762-63 arteko neguan antzeztu zuten Azkoitian *Arlekin, bi nagusiren zerbitzaria*, hots: XVIII. mendeko antzerki-gizonik garrantzitsuenetako baten lana, *Commedia dell’Arte* eta metastasiar melodramarekin zerikusia zuen eta ilustrazioko erreformarekin eta frantses gustuarekin harremanak zituen gizonaren antzerki bat. Goldonik bere *Il servitore di due Padroni* 1745. urtean estreinatu zuenez geroztik, ez da denbora luzerik iragan, eta hor dugu gure kondea bere lehengusinarekin eta lagun-taldearekin antzokiratzen obra hori, Azkoitia guztia eta, noski, jesuitak ere bai, ikusle direlarik.

Jadanik, aski ezaguna eta famatua dugu gure Munibe; honela, Fr. Juan Antonio Ubillos-ek 1762. urtean argitaratzen duenean

bere *Philosophia Naturalis*, latinez, kondea aipatuko du hitzaurrean, "Te Illust.(ris)-Comes" deituz.

1763. urtean aurkeztuko du bere *Plan de una Sociedad Económica o Academia de Ciencias, Artes útiles y Comercio*, eta, noski, Juntek onartu zuten plangintza, Akademia hau aurrera eraman zean. Gai guziak ukitzen bazituen ere, bazuen bat bereagoa, teatroa; eta bere antzezkizun-lanen prestaketan honelaxe deskribatzen digu:

"Es imponderable la fatiga y el afán con que nuestro Conde, transformado en Autor cómico, y en compositor, instruía a los nuevos operantes. Como estos vivían dispersos en diferentes pueblos de Guipúzcoa, y Vizcaya, era casi imposible reunirlos en un lugar; y así tenía que acudir nuestro Conde a todas partes. Tan pronto estaba en Marquina, como en Vergara, y en Azeoxtia, ocupado y afanado en ensayos, en repasos de su nueva ópera, y en formar y entonar la nueva compañía; pero salió con el intento. El día 11 de septiembre de 1764, se representaron ambas óperas en la sala Consistorial de la Villa de Vergara: ¡pero con qué aplauso...!"¹⁰.

Aipatzen dituen operak, *El Marischal en su fragua* eta *El Borracho Burlado* dira, lehenago, uztailean, Azkoitian, aurkeztu zirenak, Juntak biltzen ziren artean eta antzezlarri izan zirelarik: Peñafloridako kondea, Joakin Maria Egia, Felix Maria Samaniego, Pedro Balentín Mugartegi, María Josepa Munibe, Markos Rekalde, Kabier Etxebarria, Marianita Balzola...

Bergarako herrian, 1764. urtean, irailaren 10etik 15era, jai handiak ospatu ziren, San Martin Agirreren aldareetara igotzea zela eta. Elizkizunez aparte, kukañak, zezen-korridak (bi Gaztelako eta bat Nafarroako), suak, ohorezko gurdia, argiak eta, noski, kondeak prestaturiko opera komikoak.

Aita Larramendik, bere *Corografía de Guipúzcoa, descripción escrita en 1754* liburuan, badu kapitulu bat garaian ohi ziren joko eta kirolez, "De las fiestas, juegos, entretenimientos y danzas que usan en Guipúzcoa" izeneko; zezeinei buruz hauxe dio:

"... y es tal y tan grande esta afición que, como se dijo por chiste de los de Salamanca, si en el cielo se corrieran toros los guipuzcoanos todos fueran santos por irlos a ver en el cielo. En ocasiones especiales se traen toros de Castilla y de Navarra, fieros, y que con su catadura sola espantan, pero en las fiestas ordinarias y anuales se corren toros del país. Los de Castilla y Navarra siempre son toros de muerte; no así los del país, que acabada la corrida los llevan al monte y a sus caserías. Y para los toros de Navarra y Castilla se

traen asalariados toreadores de allí mismo y que viven de ese oficio tan peligroso. En Guipúzcoa, con toda la afición que hay a toros de sólo uno he oído que se metió a torero de oficio, que llamaba Chambergo...”¹¹.

Jai-giro eta testuinguru honetan, beraz, kokatu behar ditugu opera komikoen emanaldiak. Soler-ek dioenez¹², *Euridice* tragediaren 1600. urteko hitzaurrean, Peri ohartzen da grekoek beren tragediak osorik abesten zituztela, musikaren boterea ahotsarena baino askoz handiagoa zelarik; horrela, bere dramaturgia Monte-verdiren musikarekin lotuz sortu omen zen opera Mendebaldean. Italiatik Alemaniara, Frantziara, Inglaterrara eta Espainiara ere hedatzen delarik. Opera honek, bere seriotasunean, bazituen gai alaiak ere; baina XVII. mendearen bigarren partean hasiko dira umorezko zati hauek poliki-poliki independentzia hartzen. Hasieran ekitaldien bukaeran ipintzen ziren, “intermezzo”etan, dibiliti-mendu baten antzera; baina gero eta askeago gertatu ziren, genero berri bat osatu arteraino.

Garaiko saio batek dioenez, opera komikoa antzerki labur bat da, komediaren zati berdintsuez osatua, baina honen egitura nolabait laburkilo emana, pintore batek koadro handi bat miniatura bihurtzen duen bezala. Eskala-arazoa, beraz. Komedian bezala, erraza, arina izaten da gaia; pertsonaiak ekintzengatik diskurtoengatik baino ezagunago dira; intriga, saltsa hasiera-hasieratik agertu behar da, eta tituluak berak hariaren mamia adierazi behar du.

Istilu ederrenak, pertsonaia alaien artean gertatzen direnak liranteke. Honela, bada, nekazariak egokiago dira gaitzat hiritarrak baino, eta hauetarik artisauak burgesak baino; bidenabar, desegoki gertatuko litzateke printze handi bat opera komiko batean antzokiratzea. Elkarrizketa laburra, ziriduna, bizia izango da; eta musika, era berean, mementu bakoitzari egokitua.

«El Marischal en su fragua»

Guzti hau teoria mailatik ekintzen mundura eramatzen saiatu zen Peñafloridako kondea.

Le maréchal Ferrant, El Marischal en su fragua bezala itzultzen du, titulu frantsesari atxekiz, bere gutunetan “Los caballeros ferro-

nes” erabiltzen badu ere. Opera komiko hau Monsieur Quetant, frantses idazleak¹² idatzia eta Philidor-ek musikatua zen; 1761eko abuztuaren 22an “Théâtre de la Foire St. Laurent”en (egungo Gare de l’Est-en) aurkeztu zen Parisen. Gaia, hauxe du: Marcel ferrole-tako jaunak bere adiskide Monsieur Labridarekin ezkonterazi nahi du bere alaba Joanita; baina laguna bere arreba alargun Claudinaz maitemindurik dago. Nahasketa askoren ondoren, garaiko ohizko ezkontzeten bezala, aitari zor zion errespetuagatik, bere bihotzak agintzen zionaren aurka baiezkoa eman beharrean aurkitzen da alaba; baina azkenean dena ongi konpontzen da: Labrida Claudiarekin eta Joanita Colinekin ezkontzen dira.

Contaut D’Orville Pariseko garaiko kritikariak hala zioen, argumentuaren gorabeherak aipatu ondoren:

“Quelqu’ait été le succès de cet ouvrage, on ne pourra s’empêcher de vouloir un peu de mal à M. Quétant d’avoir exercé sa plume sur un sujet aussi lugubre & si étranger au genre ordinaire de L’Opéra-comique: Les situations plaisantes qui résultent du Plan, ne seront pas disparoître l’objet funèbre, sur lequel elles sont appuyées. La Pièce en général est conduite avec art: elle est écrite avec décence; mais sa pleine réussite semble principalement due à l’harmonieuse musique de M. Philidor. L’Arriette du Cocher, celle du bruit des Cloches, sont d’un genre neuf; c’est une imitation vraie, qui permet, qui exige même les répétitions, trop souvent multipliées dans d’autres circonstances & qui plurent à l’oreille aux dépens de l’intérêt de la scène”¹³.

Alegia, eta labur hartuz, opera komiko honek balio handiagoak dituela musikaren aldetik testuarenetik baino, eta bere arrakasta Philidor-en musika armoniatsuari zor zaiola, beste ezeri baino areago. Benetan handia izan zen honen arrakasta, urte berean bi argitaraldi ukantzi bait zituen, eta hurrengoan, 1762an, italiar komediak azaroaren 3an erregearen aurrean, Fontainebleau-n aurkeztu bait zuen; eta M. Delautel-ek 1763an obraren parodia bat eginen du *Le Forgeron* (*Forjaria*) izeneko beste opera komiko batekin.

François-André Danican, Philidor (Dreux, 1726 - London, 1795) musikagile-familia bateko semea zen, Versailles-en hezia erregearen kaperau André Capra-rekin. 1740. urtean, Versailles utzi eta Parisera joan zen, bere musika-karrera jarraitzena. Hemen ezezik, Londres-en ere egon zen 1754 arte. Bere joera italiarrari helduz, opera komikoak konposatu zituen, 1759tik 1765era doan epean hamaika. Hauen artean aurkitzen dira: *Le Maréchal Ferrant* (1761, abuztuak 22) eta *Sancho Pança dans son île* (1762, uztailak 8). Bere *Le Maréchal Ferrant*-ekin, gailurrera iristen da. Antzokia

betetzen zuen ikuslegoa pozik zegoen ofizioetako jendeak antzezten ikusirik. Philidor-en musikak oso mundu konplexua du, Lully-ren eta Gounod-en erdibidean; Diderot-ek "Philidor, le subtil" deituko du. Alegia, musikari fina zen benetan, kondeak antzokiratzeko hautatu zuena.

Baina, ez zen honekin bakarrik kontentatu, eta, hitzaurrean esaten digun bezala, lau aria ez dira *Le Maréchal Ferrant*-ekoak, Pergolesi-ren *La Serva Padrona*-koak baizik, antzerkitxoa zertxobait luzatzearen erantsiak.

Giovanni Battista Pergolesi operagile handiak, 23 urte zituela estreinatu zuen 1733. urteko abuztuaren 28an, Napoli-n, San Bartolome antzokian, *Il prisionero Superbo*, baina arrakasta gutxirekin, beste opera serioak bezala; bere "Intermezzo"ak, berriz, bere-hala famatuak izan ziren Italia guzтиan. Honela, *La Serva Padrona* Europa osora hedatu zen: Dresden eman zen 1740. urtean, Vienan 1746an eta Pariseko Operan, erregearen eta gorte guztiaren presentzian, 1752ko abuztuaren bian. Hain handia izan zen haren arrakasta, non literatura oso bat sortu bait zen alde eta aurka. Rousseau, Lahorgue, Grimm, Diderot eta beste entziklopedista sonatuek parte hartu zuten deman, eta, azkenean, Louis XV.ak Parisetik jaurtiki egin zuen italiar konpainia. Bainaz hazia ereinia zegoen eta Pierre Baurans, Louis Handiaren ikastetxeko irakasleak frantsesera itzulia, frantses antzokian aurkeztu zen *La Servante Maitresse*, 1754eko abuztuaren 14ean. Testuari txit ongi loturiko musikaz, Pergolesi-ren estilo melodikoa, ideia labur, estu, zehatzetzez betea, komediatxoari ongi baino hobeto moldatzen zitzaison mugimendua zuen.

Hona hemen, bada, nola 10 urte geroago, Azkoitian lehenik eta Bergaran geroago, Pergolesi-ren eta Philidor-en musika Peñafloridako kondeari esker entzuten ahal den.

«El Borracho Burlado» eta «El Carnaval»

Baina goazen orain kondeak berak sorturiko lana aztertzen: *El Borracho Burlado*. Ordi engainatuaren lehen edizioko lehen orrialdeak honela zioen: *El Borracho Burlado, ópera-cómica en castellano y Bascuence, escrita y puesta en música por un caballero guipuzcoano*.

Gasteizen, Tomas de Robles inprimatzalearen moldiztegian argitara zen, 300 ale arrunt eta 25 paper urezstatuetan, denak 494 erreal kostatu zirelarik. Bigarren argitaraldia, *fac-simil* bezala atera zuen Julio Urkixok bere *Revista Internacional de Estudios Vascos* delakoan (T. I, II, III), eta hirugarrena Gabriel Arestik Auspoa Bilduman, 48. alean, 1965ean, grafia egunearatuz.

Bi sarreratxo ditu. Lehena, Bergarako udal ordezkariek (Joaquin Ignazio Moya eta Ortega, Ignazio Maria Ozaeta eta Beorreta, Miguel Jose Olaso eta Zumalabe, Miguel Ignazio Olaso eta Uribarri, Juan Goribar) eta idazkari zen Pedro Askagorta Arana jaunek sinnatzen dute, honelako laudorioak degizkiotearik kondeari: "Nada es desconocido a V.S. sino el ocio: leyes municipales de la Patria, música, física, matemáticas, geografía, historia, humanidad, poesía..."¹⁴. Obra zehazki aipatzerakoan, honela dagite: "Lo basto de la obra, el bello orden con que está dividida, la prudencia y discreción con que está dictada..."¹⁵. Honelako hitzokin bukatzeko: "Reconozca, pues, señor, todo el País a V.S. como principio y perfección del Teatro Vascongado, como a propagador de su cultura, como a agente de su felicidad, como a móvil de su abundancia..."¹⁶, etab.

Dakusakegunez eta ohar gaitezkeenez, ez dirudi ezagutzen zuenik beste antzerkigile euskaldunik Euskal Herrian, gure kondea aipatzen eta konsideratzen bait dute lehen eta betegintzarre bezala.

Bigarren aitzin-solasa Peñaflorida berarena dugu, eta bertan zenbait ohar interesgarri ematen digu. Batean honela dio: "Sé muy bien que hay una comedia o no sé si ópera-cómica en francés de una idea muy parecida a la de ésta, pero protesto que ni la he visto ni la he leído; y lo que más es no sé con certeza su título, mucho menos su autor"¹⁷.

Badirudi, noski, A.H. Poinsinet-ek Miguel de Cervantes-en *El Quijote*-ren pasadizu batean oinarrituz idatzi zuen *Sancho Pança dans son île*, eta F.A. Danican, Philidor-ek opera komiko bezala musikatu zuenaz ari zaigula. Hau "Comédie Italienne" delakoan antzeztu zen 1762ko uztailaren 8an; eta Grimm-ek Ponsinet-en libretoa "plat et maussade", hots, arrunt eta kaskartzat jotzen du. Philidor-en musikari esker arrakasta handia ukantzen; baina, libretogileak Sedain idazleari zioenez gutun batean, hobe zen ikuslegoa opera bufo batez dibertizaraztea, eta ez asper eraztea tragedia batekin. Eta Peñafloridako kondea eritzi berekoa zen, antza.

Kondeak hau ez dela lan itzulia, bere kabuz eta bere burutik oso-osorik aterea, originala, dela diosku: "En este me confieso por su autor, y salgo responsable de todos sus defectos"¹⁸ eransten du txit apalkiro.

Garaiko ohiturari jarraituz, Munibek ez du gai mitologiko bat hartuko (jadanik Carlos III.aren pean abandonatzen hasiak ziren horiek), baizik eta gai alai, barregarri eta ohiturazkoa, eguneroko bizitzaren adierazlea. Halere, ez da, Labaien jaunak dioen bezala, "Vulgarmente báquico"¹⁹; Txanton Garrote ordi galduaren ametsen desegitearen istorioa ez bait da mozkorkeri kontu hutsa, "Sancho Panza en la Insula Barataria" delako gertakizunarekin zे-rikusia eta paraleloa bait du; azkenean, neoklasikoen (eta betikoa den) helburua ageri da: bide okerraren itsuskeria eta onaren egoki-tasuna.

Ohizkoa zen dramaturgiaren araudia ere oso-osorik errespeta-tzen da. Denbora, ekintza eta espacioari buruzko erregelak zuzen-ki jarraitzen ditu, hitzurrean berak esplikatzen digun eran:

"... y, siendo todas las acciones dirigidas a este fin (la de dar un chasco a Chanton Garrote) puede asegurarse que la acción es una y no más; en las unidades de tiempo y lugar hay todavía menos que tachar; pues si bien es verdad que desde la tienda del zapatero pasa la escena a los dos cuartos del Marqués, suponiéndose que el zapatero vivía en los cuartos bajos de este caballero, no se debe reputar por mutación de lugar..."²⁰.

Baina, hiru unitateen araudiak kezkatzen bazuen ere, ez da txikiagoa izango bere ardura hizkuntza mailan, lan elebidun baten aurrean aurkitzen bait gara. Nola ikusi zuen, bada, arazoa? Entzun ditzagun berriro bere hitzak:

"Digo, pues, que mi primera idea fue de que toda esta ópera fuese en vascuence, pero luego me faltó la dificultad del dialecto de que me había de servir en ella. Si me valía del de Azcoyta, hubiera sido poco grato a todo el resto del País hasta la frontera de Francia, por la preocupación que tienen contra el vascuence o dialecto de Goi-Erri, y si quería usar del dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastián, etc., exponía a los actores a hacerse ridículos, pues sería difícil que todos pudiesen imitarle bien. Por esta razón, pues, me hube de contentar con reservar el vascuence para lo cantado, haciendo que todo lo representado fuese en castellano"²¹.

Urkixok dioenez ere, jesuiten konpainiako aita Meagherrek la-gundu omen zuen euskal zatietan. Eta, noski, baditu honek ardoari buruzko zenbait bertso, txit herrikoiak, gainera:

“Erroman eta Parisen
 Jerezan dagoan
 ardoaren usaia
 daukate gogoan.
 Monja eta frailiak
 baita ere abadiak
 guzti-guztiak dira
 ardoaren zaliak.
 Ez da teologorik
 ez filosoforik
 ardoari neurria
 artutzen dionik.
 Gizon audiak ere
 ikusi ditut nik
 eren mozkorra ezin
 disimulaturik”²².

Ildo beretik, *El Borracho Burlado* euskarazko “Canzoneta” batekin hasten da, Txanton Garrote ardo-txarro bat eskuan duela kantatzen ari dela:

“Ai, niri zer egin ote zat!
 Oñez ibiltzen aztu zat,
 Burua jaso ezin det,
 Lurra ediro ezin det,
 Triste dut biotza guztiz,
 Edan dezadan, ea berriz”²³.

Nolabait, Baltasar del Alcázar (1530-1606) gaztelaniazko poetenaren poema ezagun hura, “Una cena” izenekoa, oroiterazten digu; baina horrelako bertsoak ugari izan dira lehenago eta geroago euskal literaturan.

Badira beste mementu batzu ere, euskarazko zatitxoekin; kondeak asko maite zituen, noski, aldaketa txiki batekin bere beste antzerki batean, *El Carnaval-en* hain zuzen, sartzen bait ditu. Donostiako saltzaileak sartzen diren agerraldiak dira: XXV.a, XXVI.a eta XXVII.a. Ene ustez, badute zerikusirik, edo antzik bederen, aita Kardaberazek, 1761. urtean “bear dan bezala” argitarra zuen *Eusqueraren berri onac eta ondo esribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco erreglac* deitu liburuan, agertzen duen zatitxo batekin; hau da, andre donostiarren erretorikarekin. Hona hemen:

«Beste errekkardari asko oi dabiltsan bezala, au batetik bestera bere gauzak saltzen edo tratuan zebillen. Erri batean, ala bearrez galai gazte batekin topatu zan, eta ikusi ta ezagutu zueneko, abegor txit gozo ta agasajo txit andia egiten asi zitzaison: “Ai au enkontrua!

Ziña ta bedeika! Au galaia! Au joia presiatua! Auxe bai gure Donostiako semea degula”»²⁴.

Eta gero aurreraxeago:

«“Nere jende onak, zer ikusi bear ote degu? Zer eskeñi degu au, edo nork egin digu? Oni begira: au nongoa ote degu? Onen patxadarri begira! Ea ken orpoetatik, koartoan bosteko estanpa ken gure begietatik: ez guri bentzat orrelakorik. Au nor degu? Gu español puru-puruak. Au nongoa dan ez dakigu. Gure aita ta ama frantzesak ziran: baña gu español garbiak, San Bizenteko Pontean bateatuak. Jende onak: au zer degu? Ken ortik! Ai au kontua! Deabruak ikusi du golillarekin astoa”; Eta onela beste gauza asko”²⁵.

El Borracho Burlado (BB) opera komikoan eta *El Carnaval* (C) sainetean, honelaxe ageri dira kantari:

“Donostiatik gatoz
ongi nekatutik
buruan karga eta
estomagoa utsik.
Erosi nai duenak
izango du emen
Erroana ta Krea
ona eta merke.
Ona Krea ta Erroana
ta gurbitxeta gai ederra”²⁶.

Dendari direnek BBn, Mariquita eta Mesonera dute izen Cn, eta BBn Txantonii bezala, andere dama batiz zuzentzen zaizkio Cn, bere marxandisak honela eskainiz:

“Jauna (BB)/Señora (C), ez digu ezer erosten? Ona nun duen, iñon
ekusi baduta lienzo preziatua. Begira. Primerako suertekoa”²⁷.

Aita Larramendik dioskunez bere *Corografia-n*, “primerakoa” hitz, hori oso donostiarra omen zen²⁸.

Jarraitzen dute saltzaileek bizi-bizi:

“Nagusi jauna, berorek (bere mesedeak) estrenatu bear nau. Ona tabako ederra piparako, nai badu Habanako hoja lejítimo-lejítimoa; ta ala propio Holandako pikatua; ta autsa, berriz, naiz Habanakoa, naiz hoja Virginiakoa, a escoger”²⁹.

Geroxeago, sagarrak eta baita lienzoak ere saltzen saiatzen dira, hitz hauekin:

“Jauna, fiña bear badu, ez du orren mesedeak Donostia-Baionetan aurkituko, nik dudan baño Holanda fiñ-fiñ preziatugorik. Nai du ekarri dezaiodan? Ortxe, kalean utzi dut”³⁰.

Bazuten, alajaina, emakumetxo haien mihi zorrotz, arina eta saltzeko abildadea!

Euskara egokitzten badio pertsonaia bakoitzari dagokion nor-tasunari, hots, hizkuntza ez-estandard batean, bizi-bizi, errealta-tearen irudi izango denean mintzo badira, berdin darabil gaztelania ere, edo, hobe esan, andaluza, pertsonaia bat antzokiratzen due-nean, Matxalen bezala BBn eta Beatriz legez Cn. Honek, tonadila bat abestu ondoren, hala esplikatzen du bere bizitza:

“Señor mío de mi ánima, ha de saber su merced, que he estado tan mala el verano pasado de resulta de unas tercianas que consintieron todos en que me moría. Yo hice promesa de ir en peregrinación al Señor Santiago si me curaba, y, habiéndome puesto buena, vengo de cumplir lo que ofresí. Vaya, Señor: hagame su mersed una caridad que en el Sielo lo hallará”³¹.

Ondoren segidila bat abestuko du:

“El vivir solterita
es lo que vale
pues, dicen, que el buey suelto
muy bien se lame”³².

Bertako estribiloa frantsesez dakarrelarik:

“Je veux rouler
toute ma vie
pelerinant
j’irai contente
et sans envie
me promenant”³³.

Beraz, hemen ikusten dugu gure andaluza, kolpetik (Santiago-ko bidean ikasirik edo) frantsesez ere badakiela; ala, agian, zatitzo hau gure kondeak ez zuen itzuli bere frantses partituturik edo opera komikoetako libretoren batetik, bere edertasuna hobeto dasta genezan bere hartan?

Hizkuntzen nahaste hau dela ezaugarririk nagusienetako, esan genezake. Adibidez, euskal atsotitz bat, paremiologiazko bildumetan aurkitu ez dudana, inongo itzulpenik gabe sartzen duenean bertso baten erdian:

“Oh, y con cuánta razón
Dijo aquel gran vizcaíno,
Auntzak itxi baleio,
Akerrak itxi leio!”³⁴.

Euskal literaturaz eta bertsoez ere arduratzen dela nabari da, XXVI. agerraldian dioenean:

“(Es una canción vascongada muy antigua y muy común, que se pone aquí por ridícula)

Arako antxinako
Bioen kontuak
Ixil egonagatik
Ez dauzkat aztuak”³⁵.

Honekin, bada, gure kondea herri-abestien biltzaile edo, hobe esan, adierazle lehenetariko ere azaltzen zaigu; txit interesarria litzateke euskal poesiaren historiarako, 1765eko otsailaren 14ean irakurri zituen “Observaciones sobre la Poesía Bascongada” dire-lakoak agertuko balira.

Musikak, nola ez, garantzi handia izan zuen *El Borracho Burlado*-ren 1764eko emankizunean. Badirudi, Peñafloridak Toulou-se-n hartutako ikasketekin eta aldamean zituen zenbaiten lagun-tzarekin moldatu zuela bere opera komikoarena. Geroztik, 1964ean antzeztu zen berriro BBa Bergarako Udaletxeen, baina orangoan musikarik gabe, eta azkenik 1981eko urriaren 18an, Mikel Deunaren elizan, Oñatiako musicalagunak interprete zirela eta Xabier Bello Portu zuzendari, beste kontzertu-emanaldi bat; baina, antza denez, hau ez zen oinarritu kondeak idatziriko partitura originalean, beste konponketa batean baizik.

RSVAP eta teatroa

Martin Agirre santuaren oroinmenetan antolatu ziren jai eta festa haiek ukantzen zuten arrakasta hain izan zen handia, non giro eder hari iraupena eman behar zitzaiola erabaki baitzen eta Peñafloridako kondeak bere lagunekin, 1765. urtean, “La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País” sortu bait zuen. Honen helburuen artean, hauexek agertzen ziren:

“El objeto de la Sociedad serían las ciencias, bellas letras y Artes y que para promoverlas con suceso, harán necesarias anuales Asambleas para las cuales admitieron estos principios: 1) Que hera precisa una onesta diversión para el tpo en que se juntasen tantos caballeros en un lugar, 2) Que no se podía escoger otra más amena, ni más util, que la del theatre, 3) Que para que correspondiese el sopno, a lo deleitable jamás se presentaría pieza, que no fuese muy

correcta, no solo en la substancia de su disposición sino en el modo de executarlo, 4) Que por tanto devia ser uno de los objetos de la Sociedad corregir el theatro de modo que fuese escuela de virtud y no del vicio, 5) Que ocupando esta diversión las noches se dedicarían los días al cultivo de las ciencias, bellas letras y Artes”³⁶.

Hots: zalduntxoen artean, antzerkiak funtzio txit garrantzizkoa betetzen zuen, batipat eguneko lanez atseden hartzekoa eta, era berean, birtute-eskolaarena.

Bildu ere, bildu ziren Bergaran 1765eko otsailaren zazpian bere lehen Biltzar formalean numeroko lagunak, agregatuak eta bestek lehendakariarekin, literatur bilerak Olasoren etxearen eginez eta antzezkizunak Moyuarenearnean emanez.

Otsailaren zazpian adiskidetasunaz Egiak irakurritako hitzaldi baten ondoren, Ignazio Luis Agirrek “Discurso en defensa del Teatro” izeneko txostena irakurri zuen, helburutzat jartzen zuelarik “Desterrar la preocupación en que se vive contra el theatro y la ignorancia que se padece de las utilidades que acarrea, quando es correcto”³⁷, hots, antzerkiaren kontrako aurreritzien deuseztatzeko arrazoia emanet eta bere alde onak, ongi erabiltzen bazen, agertuz; eta, adibide askoren artean, Lope de Vega, Corneille, Racine eta Molière ekarri zituen, azpimarratuz ohitura gaitzoak zuzen zitezen biderik aproposena eta egokiena teatroa zela.

Beste hitzaldiekin iragan zen eguna, eta, gaua iritsi zenean, joan ziren Moyuarenera antzerkia ikustera. Honetaxe kontatzen digu kondeak berak gertakaria:

“En el primer descanso de la escalera havia dos criados que no permitian subir por ella sino a los que presentaban la esquela de combite de la sociedad. En la antesala recevian a los combidados los Amigos Otazu o Olaso Zumalabe dandoles despues en la Pieza el asiento que les correspondía con la separación arreglada.

Los amigos que no estaban ocupados en la orquesta o el theatro tenían su asiento particular y pribado de la Sociedad en el primer banco despues de la Orquesta, y las Señoras, y Caballeros que tenian que representar estaban en sus respectivos vestuarios disponiéndose para la función.

Arregladas así las cosas con este vello orden se toco por el golpe de instrumentos, que componían la orquesta una ermosa obertura, que tubo agradablemente emblesado el concurso. Acabada esta se representó la tragedia de la Clemencia de Tito que tradujo el Amigo Egua de la que escribió en italiano el abate Metastasio. Por primer intermedio se toco una Vella Sinfonia y por conclusión una parte de la opera de La serba Patrona”³⁷.

Nola esan, bada, beste aldieta bezala, txaloak amaieran lehertu zirela ia ezin etenik. Otsailaren zortzian, goizeko hamarretan hasi ziren bilerak berriro. Gasteizko zirujau zen Juan Etxeberriaren hitzaldi batekin. Eta ondoren, jarraitzen du kondeak bere historian:

“Se leio la tragedia que se representó la vispera a la noche y se reconocio que el amigo Eguia, havia empleado en esta vella traducion todo aquel arte que es menester para hacer sentencioso y agradable el verso, y para adornar y componer una pieza de theatro, que destinada en el original para opera tragica tubiese, desnudandola de la Musica, aquel espiritu y aquella armonia que la hiciese tan agradable, y descubriese tan viba la Clemencia en Tito, el furor en Vitelia, la constante fidelidad en Servilla, la fuerza de pasiones encontrada en Sexto y la grandeza de Alma en Anio”³⁸.

Joaquin Egia (1733-1803), Narrosko hirugarren markesa, oso jokalari handia zen. Kontatzen digutenez, behin Azkotian, 1761ean, trukoetara (hau da, bilar antzeko joko batean) jokatu zuen hamar egunez segidan. Antzezlari bezala, kondearekin batera ikusiko dugu lan guztietan; eta, honetaz aparte, Metastasio itzultzen. Erroman jaio zen hau eta 1698an eta Pietro Trapassi zen izenez; Vienan, 1730-1740 hamarkadan idatzitzen bere drama onenak, hala nola *Adriano in Siria*, *Demetrio*, *Issipile*, *Olimpiade*, *Demofoonte*, *La Clemenza di Tito*, etab. Itzulpentzat ugari izan zituen honek gaztelaniara, hauen artean Luzan-ena bat eta bestea gure Egiarena, Parisen Palais Royal-en 30 urtez bizi izan zenarena.

Egun berean, Kondearen beste komedia original bat irakurri zen, *La Tertulia*; tamalez, galdua duguna, baina gaia egileak berak kontaturik ezagutzen duguna:

“Su asumpto es, inspirar a la nación el justo aprecio de las piezas tragicas, desterrando la nimia preocupacion que se tiene en favor de las comedias por los apasionados a ellas, y el injusto horror con que las miran los Enemigos del Theatro, haciendo para esto una sabia distincion de piezas buenas y malas: las primeras para que sirban al fin primitivo del theatro que es inspirar terror al vicio y amor a la virtud, y las segundas para desterrarlas y abolirlas del mundo. Con esta ocasion se descubren en esta hermosa pieza una verdad de perspectiba, que muestra su caracter desde luego que no se la elogia: una verdad solidia y sin patarat, que no huie pero tampoco abusa de las diversiones, un genio nacional, y a quien nada agrada sino aquello en que se crió, otro indiferente, otro apasionado, otro presumido y altanero, otro ridiculo por afectado, y todos en una comborsación natural descubriendo feo lo vicioso y amable todo lo contrario.

Con esta lectura se dio fin a la Asamblea y por la noche se representó la misma pieza de *La tertulia*³⁹.

Hurrengo egunean, otsailaren 9an, San Pedro elizara mezatara joan ondoren, Pierre Corneille-ren *Horace* izeneko tragedia irakurri zuten, gaztelaniara Juan de la Mata Linares jaunak itzulia "Octava rima" delako ahapaldietan; baina bostgarren ekitaldia kenduz, ongi ezagutu arren Horaziok bere *Ars Poetica*-n zioena, hots: ekitaldien numeroak bostekoa behar duela izan.

Otsailaren 11n, bostgarren egunean, kondeak Nicolas Altuna-ren oroitzapenetan gorazarre bat irakurri ondoren, Agirrek *Casilda* izeneko komedia bertsotan irakurri zuen. Hau Molière-ren *Tartuffe* bera zen, izenez aldatua, zentsurari ihes egitearren.

Otsailaren 12an, ohizko mezaren ondoren, kondeak itzulitako Palaprat-en komedia, *Pathelin* izenekoa, irakurri zen. Bere gaia, honelaxe kontatzen digu:

"Esta bella pieza se dirige a descubrir en la persona de un Abogado trámposo, lo horrible de una conducta poco fiel y los daños que acarrea la mala fe en personas públicas y cuyas luces alumbran a los demás. Muestrase también en ella la desmedida ambición de un negociante, ridiculizada con muchas burlas propias para el castigo y corrección del sordido vicio de la avaricia, y a bueltas de esto se descubre el noble carácter de una dama que antepone la verdad a sus propias ventajas, y lo que es aun más a sus mismas dominantes pasiones, mezclado todo de una sal y chiste tan grato que divierte instruyendo a que logra la dicha de ver con cuidado esta escogida pieza de teatro"⁴⁰.

Historia hau, XV. mendeko frances obra anonimo batean oinarritua dago: *Maese Pierre Pathelin*-en. Obra hau berau hartuko du, mende bat beranduago, euskal teatro berriaren aitak, on Marzelino Soroak, bere euskarazko *Anton Kaiku* 1882. urtean bere erara libreki moldatzeko.

Kontu eta arreta handiz ibiltzen ziren, noski, "soziedade"ko lagunak hautatzen zituzten antzerki-lanekin, horretarakoxe espreski ikerle batzu izendatuak izan zituztelarik. Teatro-zaletasun honek arazoak sortzen zituela garaiko kontzientzieta, —sermoilari estuen eraginez, noski— kondearen gutun batean agertzen da txit argi. Bertan kexu da batzuek inpiotzat jotzen dutelako, bere alabak antzokiratzen dituelako aitzakian. Hona ematen digun historiatxoa: Joan omen zen behin Egiaren morroi kiskilosoa bat jesuiten ikastetxeko aita Croce-rengana, konsultatzera ea kopia zezaileen kontzientziaz bere nagusiak agindu zion tragedia, *La Cle-*

mencia de Tito. Jesuitak, obra pausuki irakurri eta gero, bueltatu egin zion, zuhurki esanez, ezen “de lo que debía hacer escrúpulo era de copiarla mal”⁴¹; alegría, arreta eta kontzientzia ongi kopiatzen jarri behar zuela. Funtzioak, XVIII. mendeko argiei eta noble kulto batzuri zegokien bezala, ondo arautuak zeuden, horretarako “Reglamento que se ha de guardar en las funciones de Teatro” delako bat ere bazutelarik.

Kondea, 1766ko urtarrilaren 20an irakurri zuen hitzaldi batean, “Del Buen gusto en la Literatura” deituan ere, garaiko prezeptisten ildotik doa, Montiano eta Luzan-ek ezarritako legerietan barrena.

1775. urtean Bergarara iraganen da, “Real Seminario Patriótico de Vergara”ren martxa hobeto zaintzearen, Marcelino Menández Pelayo-rentzat “La primera escuela laica de España” izan zenaz arduratzera, non, beste gauzen artean, gaiok irakasten bait ziren: erlijioa, gaztelania, latina, frantsesa, matematikak, fisika, kimika, mineralogia, marrazkigintza, musika, dantza, esgrima...

Mintegi honetako IX. artikulua hizkuntzen irakaskuntzaz mintzo da, esanez nola hasi behar den hizkuntza nazionalekin —“las nacionales, como son el Bascuence y el castellano”⁴²—, latina, frantsesa, inglesa eta italiararekin jarraituz.

Kondearen euskararenganako maitasuna nabaria zen, eta bere sua semearengan pizten ere saiatu zen, honela bait ziotson gutun batean: “Tu retazo bascongado nos ha dado mucho gusto, no solo por las noticias particulares que encierra sino por la prueba que das del afecto que conserbas a tu lengua nativa”⁴³.

Kondea arduratuko da zuzenki irakasle onak eskola honetarako bilatzen. Honela, Matak Peñafloridari 1778ko urtarrilaren 31n eginko gutun batean, Reyner Gabrieli-ren kontratuaz mintzatuko zaio.

Bera ere ez zen inoiz gelditu antzerki-zaletasunean. Bere heriotzan, adiskide kutuna zuen Egiak egin zion gorazarrean, esango digu, nola hil zen drama edo opera komiko bat, *La Paz* izenekoa, eta beste antzerkitxo inozente batzu gazteen dibertsiorako eta partikularzki Bergarako mintegian ikasten ari zirenentzat, idazten ari zen bitartean.

Hemen antzerkiak bizirik zirauela, argi aski adierazten digu akta honek:

"17 oct. 1793. Junta Privada de los Amigos del País de Guipúzcoa en Vergara.

Recordando esta junta que tiene ofrecido cambiar a los Amigos de Alava una razon de lo que han notado los vocales de esta en las funciones de Teatro del Seminario para la formación del reglamento de que estan encargados aquellos Amigos, se haze en la forma siguiente.

1. Se ha notado que los Ensayos para estas diversiones no dejan de distraer a los seminaristas del Estudio en sus respectivas clases lo que pudiera evitarse acordando, que las piezas que representan en Carnabal, o Navidades se hayan de elegir, y ensayar en tiempo de Vacaciones, con lo que se conseguiría darles en éllas una recreación más.
2. Se han representado algunas veces piezas de mal gusto y alguna vez Entremeses en que se ponía en ridículo a uno de los profesores de las primeras Ciencias.
3. La concurrencia de los Académicos al balcón no parece conveniente, y pudieran con su inspector colocarse en un banco inmediato a la orquesta.
4. La Confusión que reina en el Balcón en tales ocasiones debe evitarse estableciendo reglas fijas así en el orden a las personas que vayan a ocuparle (teniendo presente su poca cavida) como el traje formal con que debe concurrir... Con tanto se dio fin a la Junta"⁴⁴.

Honen arabera, ikus dezakegu mende-bukaeran bizirik zirautela antzezkizunek Bergarako Mintegian, bai Eguberrieta eta bai Ihauterietan. Zenbait aldiz antzerkitxo irrigarri, zirikatzaile eta irakasleren baten kritika bezala ere egin izan zela, eta, noski, buila ikaragarria sortzen zenez gero ikuslegoaren artean, irakasleek eta ikasleek leku ezberdinetan egon behar zutela, ikuskizuna behar bezala, ordena baten barne, eman zedin.

Amaitzeko, eta laburki esateko: Frantzisko Xabier Maria Munibe eta Idiakerz izango dugu XVIII. mendeko, ez heterodoxo edo masoi bat, esan ohi den bezala, baizik bere jaioterriarenaganako maitasun handiko gizona, eta, batez ere, teatrozaletasunaz beteriko gizon ilustratua, euskal opera komikoaren aita.

P. U.

1 "Elogio de Don Xabier María de Munibe Idiaquez, Conde de Peñaflorida", Madrid, 1785, apud: ZUMALDE, I.: "El Conde de Peñaflorida como músico", in: *Euskor*, n° 10, 1985, 53. or.

- 2 ZUMALDE, I.: aip. lek., 53. or.
- 3 COGOLLOR, R.A.: *Los aldeanos chriticos, o Cartas chritisas sobre lo que se verá*, Evora, 1758.
- 4 "Cartas que con motivo de la publicación de los Aldeanos Críticos mediaron entre el conde de Peñaflorida y Don Francisco Lobon y el Padre Isla [sic], apud: P. ISLA: *Obras escogidas*, BAE, T. XV, Madrid, 1850, 393. or.
- 5 *Teatro zaarra*, Auspoa 48, Donostia, 1965, 51. or.
- 6 *Ibid.*, 77. or.
- 7 LAKARRA, J.: "Barrutiaren Acto para la Nochebuena eta teatro erlijioso erro-manikoa", in: PEDRO I. DE BARRUTIA: *Gabonetako Ikuskizuna*, Gasteiz, 1983, 16. or.
- 8 SAN MARTIN, J.: *Literaturaren inguruaren*, Donostia, 1980, 61. or.
- 9 ARETA, L.M.: *Obra literaria de la Real Sociedad Vascongada de Los Amigos del País*, Gasteiz, 1976, 410. or.
- 10 PALACIOS, E.: "Actividad literaria del Conde de Peñaflorida. El Carnaval", in: *Boletín de la Institución Sancho el Sabio*, Gasteiz, 1974, T. XVIII, 525. or.
- 11 LARRAMENDI, M.: *Corografía de Guipúzcoa, descripción escrita en 1754*, Buenos Aires, 1950, 235. or.
- 12 SOLER, J.: "Algunas ideas sobre la ópera en España", apud: *X Festival Internacional de Música y Danza de Asturias*, Oviedo, 1984, 131. or.
- 13 D'ORVILLE, C.: *Histoire de L'Opéra Bouffon contenant les jugements de toutes les pièces qui ont paru depuis sa naissance jusqu'à ce jour pour servir à L'Histoire des Théâtres de Paris*, Paris, 1768, 182-183 or.
- 14 MUNIBE, X.: *El Borracho Burlado*, Gasteiz, 1764. Hitzaurrean.
- 15 MUNIBE, X.: aip. lib., hitzaurrean.
- 16 MUNIBE, X.: aip. lib., hitzaurrean.
- 17 MUNIBE, X.: aip. lib., hitzaurreko oharrean.
- 18 MUNIBE, X.: aip. lib., hitzaurrean.
- 19 LABAIEN, A.: *Teatro euskaro*, Donostia, 1965, 32. or.
- 20 MUNIBE, X.: aip. lib., hitzaurrean.
- 21 MUNIBE, X.: aip. lib., hitzaurrean.
- 22 ONAINDIA, S.: *Milla euskal olerki eder*, Larrea, 1954, 245-246 or.
- 23 MUNIBE, X.: aip. lib., 1. or.
- 24 KARDABERAZ, A.: *Euskeraren Berri Onak...*, Iruña, 1761/Auspoa 37, Donostia, 1964, 102. or
- 25 KARDABERAZ, A.: aip. lib., 103. or
- 26 MUNIBE, X.: aip. lib., 32. or.
- 27 MUNIBE, X.: aip. lib., 33. or.
- 28 LARRAMENDI, M.: aip. lib., 321. or.
- 29 MUNIBE, X.: aip. lib., 34. or.

- 30 MUNIBE, X.: aip. lib., 34. or.
- 31 MUNIBE, X.: aip. lib., 38. or.
- 32 MUNIBE, X.: aip. lib., 41. or
- 33 MUNIBE, X.: aip. lib., 41. or.
- 34 MUNIBE, X.: aip. lib., 6. or.
- 35 MUNIBE, X.: aip. lib., 35. or.
- 36 MUNIBE, X.: "Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País", in: *RIEV*, T. XXI, 322-323 or.
- 37 MUNIBE, X.: "Historia de...", *RIEV*, T. XXII, 454-455 or.
- 38 MUNIBE, X.: "Historia de...", *RIEV*, T. XXII, 456. or.
- 39 MUNIBE, X.: "Historia de...", *RIEV*, T. XXII, 456-457 or.
- 40 MUNIBE, X.: "Historia de...", *RIEV*, T. XXII, 461. or.
- 41 ARETA, L.M.: aip. lib., 411. or.
- 42 URQUIJO, J.: "Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia", in: *RIEV*, T. XXVII, 308. or.
- 43 URQUIJO, J.: aip. lib., 308. or.
- 44 Fondo Prestamero. Gasteiz.
-

EL TEATRO DEL CONDE DE PEÑAFLORIDA

LE THEATRE DU COMTE DE PEÑAFLORIDA

Con motivo de la celebración del segundo centenario de la muerte del fundador de la "Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País", Patri Urkizu estudia el teatro de los caballeritos de Azcoitia.

El autor se detiene de manera especial en los siguientes temas: el lugar ocupado por el teatro en sus ocupaciones cotidianas y en sus ocios; las ideas motrices del Conde de Peñaflorida en la composición de sus óperas cómicas; las traducciones, creaciones y composiciones musicales, organizadas y estrenadas por el Conde. El artículo se centra sobre todo en las obras "El Mariscal en su fragua", "El Borracho burlado" y "El Carnaval", en su estudio y en sus relaciones con el teatro neoclásico y ópera italiana de la época.

En la parte final, el autor estudia la aparición temprana del clima teatral del País Vasco Sur y su posterior desarrollo en el "Real Seminario de Vergara".

A l'occasion du bicentenaire de la mort du fondateur de la «Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País», Patri Urkizu étudie le théâtre des «caballe-ritos de Azcoitia».

L'auteur s'arrête plus particulièrement sur les sujets suivants: la place du théâtre dans les occupations quotidiennes et les moments de loisir du Comte de Pañaflorida; les idées motrices dans la composition de ses opéras comiques; les traductions, les compositions musicales et les créations mises en scène par le Comte. L'article est avant tout centré sur les œuvres «El Mariscal en su fragua», «El Borracho burlado» et «El Carnaval», sur leur étude et leur rapport avec le théâtre néoclassique et l'opéra italien de l'époque.

Dans la dernière partie l'auteur étudie l'apparition précoce du climat théâtral au Pays Basque Sud et son développement ultérieur dans le «Real Seminario de Vergara».